

ETXAUZIA, PROIEKTU KOMUNITARIO NAZIONALA

Etxauzia Gaztelua ezagutarazi zuen iraganeko lema duzu hau: “Euskaldun bat euro bat”. Proiektuaren bultzatzaileek “Bizi eta Zabal” dute aldarri orain. 215 bazkidek sostengatzen dute Etxauzia Nafartarren Etxea elkarteak. 2.500 babesle eta 100.000 euro inguratu dituzte azken bi urteetan. Gazteluaren prezioa hiru milioi eurokoa zen hastapenean, 1.500.000 euro balio du gaur egun. Proiektua Gazteluaz eta diru biletaz harago doa, hala ere. Elkartearen komunikazio arduradun Ion Ansak gidatu gaitu Etxauziaren inguruan; Baigorriin (Baxenabarre), Iparla mendiaren magalean.



Mikel Asurmendi
@masurmendi

Etxauzia Gazteluak hainbat mendetako historia dauka. Bertrand Etxautz (1599-1617) baigorriar noblearena izan zen, Baionako apezpikua eta Henri IV. Erregearen hurbilekoa zena. Gero jabegoa aldatuz joan da: XIX. mendean, Hendaiaiko Abadia Gazteluaren jabeak, Antoine d'Abbadie d'Arrastek, haren anaia Jean Charles d'Abbadierentzat erosi zuen. Iragan mendera etorrita, haren iloba Henri d'Abbadie d'Arrast (1897-1968) zinegilearena izatera pasa zen. “Harry” d'Abbadie izenez ezagutua, Hollywooden zinema zuzendari eta aktore izan zen, Charles Chaplinekin lan egindakoa: “Chaplin hiru aldiz etorri zen Baigorriira, udalditan Etxauzian ostatu hartu zuen ospe garai gorenean. Haren argazkiak daude gazteluan. Harry euskaldun gisa aritu zen Hollywooden. Maila handiko zinegilea izan zen, baina oso ezezaguna da euskaldunontzat. Baigorriin lurperatuta dago”, erran digu Ion Ansak. II. Mundu Gerran berriz, alemaniar naziak Etxauzian ostatatu ziren. Harry hil eta gero garai ilun samarra heldu zen gazteluarentzat.

Etxauziaren egungo jabea Ajit Asrani da, pakistandar jatorriko estatubatuarra. Miamin bizi da. Frantzia merkatu handia dago gazteluen inguruan, hori ikusita, proiektuaren bultzatzaileek Etxauzia herriarentzat berreskuratu

nahi dute. Jabearekin ari dira negoziatzen kari horretara.

Herritarren proiektu nazionala

Xedea gaztelua erostea bada ere, ez da helburu bakarra, egitasmoaren gibelego funtsa baizik. Gazteluaren kostua aski handia izan arren, ekimenaren sustatzaileek ez dute proiektua “instituzionalizatzea” nahi: “Kontua ez da soilik gaztelua erostea, fantasia polita bada ere. Gaztelua palanka da atzean dagoen proiektua garatzeko”, dio solaskideak.

Etxauzia lantegien elkarteak izatea nahi dute: eskualdearen eta inguruaren garapena dute xede, enpresen arteko elkarlanaren eta elkartasunaren bidez. Iparraldeko barnealdeak berezkitasunak dauka: euskara gorde du, kostaldearen eta hiriaren aldean; ekonomia lantzeko berezko jitea garatu du azken urteotan; emigrazio lurraldea izan da; eta egun ere, tamalez, halaxe da. Gazteek kanpora joan behar izaten dute, halabeharrez. Alta bada, belaunaldi belaunaldi, herri ekimenari esker –Basai-zea elkarteak tarteko, besteak beste– baigorriarrek euskal nortasuna atxiki dute. Jakin zutenean oraingo jabeek Etxauzia saldu nahi zutela, zer hobe proiektuaren aldeko nahikaria sustatzea baino! Auzartak dira baigorriarrak.



Proiektua ideia nazionalaren inguruan antolatzen ari da, hots, Euskal Herri osoa kontuan harturik. Kultura berealdiko ezaugarria izanagatik, ekonomiak motorra izan behar duela diote eragileek. Enpresen bilgune bihurtu nahi dute, baliabide zentro gisara antolatua. Sare dinamika baten barnean ari dira, komunikazio bateratua landuz eta eskubide kolektiboaren defentsa bermatuz. Herritarren formakuntza zentroa abian jarri dute. Ekonomia, ondarea eta historia lantzen dituzten taldeak ari dira dagoeneko.

Komunitatearen lanketak iraunkorra izan behar duela jakitun, bi fasetan aurrerakia dute proiektua une honetan: Etxauzia erosi bitartekoa eta berau eskuratu ondorengo garaia kudeatzeko fasea. Garazin eta Baztanen gaindi bide egin dute eta orain “proiektua eskualdean kokatu ondoren, aurrera egiteko, ikuspegi nazionalaren ideia ongi azaldu nahi dugu. Euskal Herri osoko komunitateak leku izan behar du proiektuan. Gaztelu eder bat izateak jendea erakarri behar du, ‘izan ginelako gara’ lema bitartez, baina izaten segitzeko, beharrezko diren bitartekoak zein diren argi jakinarazi behar diogu jendeari”. Proiektuaren abiaburuan, “euskaldun bat euro bat” lemak 100.000 euro ekarri du, onura



handia. Orain, berriz, hausnarketa fase batean jardun ondoren, fase berri batera pasa dira. Hainbat langile berri ari dira egitasmoan, modu profesionalagoan.

Komunitateko partaidearen onurak

Urratsez urrats, lehen webgune berria osatzea izan da: etxauzia.eus. Hasiera-ko bera da, baina atalak hornituagoak eskaintzen ditu orain: Ekonomia, Diaspora, Kultura eta Historia lantzen ari dira. Komunitateko kideei proiektuaren onurak ongi azalduta daude gunean, diru-bilketa kanpaina berriaren xehetasunak barne: “Lehen kanpaina 2.000 lagun bildu zen proiektura, orain, kopuru hori ahalik eta gehien zabaldu nahi dugu. Horretarako, jendeak proiektuaren parte sentitzea nahi dugu, kontua ez da ‘dirua emadazu eta agur’. Emaila proiektuko parte izatea nahi dugu”. Gaztelua Administrazio Kontseiluak kudeatua izanen da. Irabazi asmorik gabeko elkarte denez gero, desfiskalizazioaren onura ekartzen duena zergetan. Ion Ansaren hitzetan, “erabakiak batzar orokor eta zabalean hartzen dira legearen arabera estatutuen bidez, gazteluaren eta proiektuaren jabea euskal komunitatea da dagoeneko”.

Elkarlanerako hitzarmenak egiten ari dira. Ez dira gutxi inguratu dituz-

ten elkarte edota ekimenak: Albaola, Labrit, Olatukoop, Udalbiltza, Hendaia-ko Abadia Gaztelua, Eusko Ikaskuntza, EHU, Errigora, San Agustin, Lekuona eta beste hainbat proiektu eman diote atxikimendua Etxauziari, baita elkarlanean aritzeko baietza ere. Donostiako Tabakalera aurkeztu dituzte proiektuaren nondik norako berriak. Apiril honetan, Gasteiz, Bilbo eta Iruñean gauza bera egingen dute. Ekainaren 30ean, berriz, elkarteak egingen duen diru-bilketaren kopurua eta proiektuaren berri zehatza jakinaraziko dute. Komunikazio arduradunak dioenez, “Baigorriko eskualdearen eta Urepeleko artzainaren miresmenaz harago joateko garaia da”. Bere hitzetan, Euskal Herriko proiektu nagusiak Hegoaldean daude, horietako askok EAEn funtzionatzen dute gehien. Iparraldean Euskal Elkargoa sortu berri da, hemen badago ere nahikaria. Bi aldean arteko harreman hutsena badago oraindik ere: “Gu harago goaz gainera. Baigorri euskal emigratioaren eskualdea izanda, proiektu honetarako leku paregabea da. Euskal Herriko zortzigarren lurraldearen egoitza nagusia izatea nahi dugu Etxauzia: euskal diasporarena, munduko euskaldun guztiei zabal dutako gunea. Euskal Etxe guztien etxe ama, Euskal Herriaren ataria”. ■



Etxauzia Gaztelua Baigorriin dago. Jabeak 1.500.000 euroko prezioa jarri dio.

- » **ION ANSA, ETXAUZIAKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA:** “Kontua ez da soilik gaztelua erostea, fantasia polita bada ere. Gaztelua palanka da atzean dagoen proiektua garatzeko”
- » “Euskal Herriko zortzigarren lurraldearen egoitza nagusia izatea nahi dugu Etxauzia: euskal diasporarena, munduko euskaldun guztiei zabal dutako gunea. Euskal Etxe guztien etxe ama, Euskal Herriaren ataria”